



Maria Azpilicueta, anonimo popularra



*Maria Azpilicueta Garciaren bizitza kontatuz
Diario de Navarra egunkariak 2015ean argitaratu
zuen artikulua.*

Duela bederatzita urte, *Diario de Navarra* egunkariak gure izeba zahar baten inguruko artikulua argitaratu zuen *Nafarroa saileko Iruñ±ea eta Iruñ±erria* azpisaileko *Kaleak eta auzoak* ataleko *Anonimo popularrak* azpiatalean. Pilar Fernandez Larrea izeneko kazetari leitzarrak sinatu zuen artikulua. Fernandezek urteak eman zituen larunbatetan goiburu horrekin pertsona ezezagunei buruzko artikulua hurbilak argitaratzen, *â€œkazetaritza humanoaâ€œ* deitzen duten hori egiten.

Erran bezala, 2015ean, gure izeba zahar bati egokitu zitzaion atal horretan agertzea. *Mariaren begirada ausarta* izenburua paratu zion kazetariak **Maria Azpilicueta Garcia** ezezagunaren gaineko artikuluari. Iruñ±eko II. Zabalguneko Ruiz de Alda etxe multzoak 65 urte egiten zituen ordu hartan eta Maria hasiera-

hasieratik izan zen bertako bizilaguna; eta efemeride ahul hori abiapuntu hartuta, Mariak bere bizitzako nondik norakoak goitik behera kontatu zizkion kazetariari.

Merezi du artikulu osoa arretaz irakurtzea, ongi idatzita egoteaz gainera, oso gauza interesgarriak kontatzen baititu. Maria Betelun jaio zen 1913an, aitaren ogibideak hara eraman baitzuen familia. Geroago, Lekunberrira joan ziren bizitzera eta, han zeudela, aita 1928an hil zitzaien Azpirotzen, auto istripuz; eta aipatzen ari garen artikulu hartan Mariak esplikatu zuen haren heriotza dela-eta â€œpentsiorik eta etxerik gabeâ€ gelditu zirela. Berak 14 urte zituen orduan eta, 88 urte geroago, oraindik ere ongi gogoratzen omen zuen zoritxarreko egun hartako minutuetako bakoitza. â€œEta berotasunez eskertzen du Lekunberriko herritarrengandik jaso zuten laguntzaâ€, dio artikuluak. â€œAyestaran hotelean diru bilketa egin zuten eta Escala etxetik esnea bidaltzen ziguten Plazaolanâ€.

Eskolan â€œzoriontsuaâ€ zela kontatu zuen Mariak eta haserretzen zela joaten uzten ez ziotelarik. Hartara, pentsatzekoa da are gehiago tristatuko zela aitaren heriotza zela-eta ikasketak utzi behar izan zituenean. â€œ14 urterekin Iruñera joan behar izan nuen, neskame. Gose handia pasatu nuen, egunero afaltzeko kafesnea eta ogia ematen zidaten. Hilekoa eten zitzaidan eta ama horretaz ohartu zelarik ospitalera eraman ninduen, bai eta etxe hartatik atera ereâ€. Ordurako, familia osoa mugitua zen hiriburura. Maria jostun hasi zen. Laneko arropa josten zuen: hiru pezeta dozena bat alkandoraren truke.

Artikuluaren interneten dago oraindik [eskuragai](#). Baina, bukatzeko, erran dezagun zergatik artikuluaren lerroburuan aipatzen den Mariaren ausardia. â€œEgun txar batean ezkondu nintzen. Militar batekin. 26 urteko kalbarioa izan zenâ€. Baina Mariak, 52 urte zituelarik, ausarki erabaki zuen ezin zuela gehiago jasan. Artikuluak ez du xehetasunik ematen, baina tratu txarrak pairatu zituen. â€œSan Frantziskoko apezak erraten zidan liskarra sortuz gero leihoak irekitzeko eta banantze eklesiastikoa eman zidatenâ€.


Agiri mota: Paperezko egunkari baten orrialde zati bat.

Dimentsioak: 25 x 32 cm.

Data: Artikuluak 2015eko azaroaren 28an argitaratu zuten.

Transkripzioa: Artikuluak [hemen](#) irakur daiteke. Paperezko egunkari zatiaren goiko aldean honako hau idatzi zuten boligrafo urdin batekin: â€œMÃª del Mar. Un beso fuerte y saludos para todas las Hnas en especial para ti. Dolores Lergaâ€.

Jabetza: Paperezko egunkari zatia Asier Azpilikuetaarena da. Artikuluaren egile eta esplotazio eskubideak egilearenak eta enpresa argitaratzailearenak dira, noski.



Maria Azpilicueta Garciaren zuhaitz genealogiko txikia.
Â© asier azpilikueta